

358 – Norberaren Ikas Alorra eta Norberaren Ikas Sarea helduen euskararen irakaskuntzan – Etsenplua emanaz

Andoni Tolosa – AEK. Donostia.

https://dl.dropboxusercontent.com/u/7391960/NIA_2.mp4

Ez da kontu berria, bere esparru naturalean irakasten den beste edozein hizkuntza bezala, jakin badakigu, edo behintzat susmatzen dugu, ikaskuntza informalak duen garrantzia. Zerbait egin behar du ikasleak, bere kabuz —eskolatik kanpo, alegia—, hizkuntza modu eraginkorragoan eskuratzeko. Ideia horretan sakontzen lagunduko digu “Norberaren Ikas Alorrak”. Zer diren ulertuko dugu eta gure eguneroko jardunean txertatzeko pista batzuk jasoko ditugu.

Ikastaroa hasi aurretik egin beharrekoa

- [Galdetegi hau](#) bete eta bidali (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)
- [Bideoa](#) ikusi (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)
- Bideo ikusi ondoren, NIAren definizioa argitaratu [ohar-taula honetan](#) (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)

Ikasgela, *Irakasbilen* (www.irakasbil.eus) > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, atariko NIRE IKASTAROAK sailera jo, eta dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatzi, matrikulatutako ikastaroan sartzeko.

Helburu orokorrak

- 1 NIAren definizioa eta marko teorikoa ulertzea.
- 2 NIAk irakasleonek eguneroko jarduerarekin lotzea.
- 3 NIAk garatzeko oinarritzko tresna batzuk ezagutu eta erabiltzea.

Helburu operatiboak

- 1 NIAren ezaugarri nagusiak jorratzea.
- 2 Ikaslearen NIAk HEOC berrian eduki dezakeen lekuaz hausnartzea.
- 3 NIAk (norberarena zein ikasleena) sortzen laguntzeko teknikak lantzea.

- 4 Norberaren NIA identifikatu eta mapa batera ekartzea.
- 5 Twitter, Facebook, Diigo eta Feedly tresnak ezagutu eta oinarritzko erabilpena egitea.

Edukiak

- 1 Ikastaro-aurrekoak.
- 2 Zer dira NIAk? (120')
- 3 HEOC berria. (60')
- 4 Guztiok dugu NIAren bat. (120')
- 5 Tresna eta baliabideak. (260')
- 6 Ebaluazioa eta aurrera begirakoak. (40')

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, beraz, hausnarketa eta haren ondorioen gaineko praktikak uztartuko ditugu. Talde-lana izango da ardatza, eta emaitzak modu eskuragarrian jasoko ditu ikasle bakoitzak. Baliabide digitalak eta analogikoak uztartuko ditugu ikastaro osoan zehar.

Ebaluazioa

Ikasleek prozesua hasten duten egunetik amaitzen duten arte **ebaluazio etengabea** eta **segidakoa** eginez neurtzen da ikasitakoa zenbateraino lortu den. Horrela, hezitzailea heziketa-ekintza osoan ikasleek burutu duten prozesua ezagutzeko, aurreikusteko eta egiaztatzeko moduan da. Ikasketari bakoitzaren abiapuntua ezagutzeko, ebaluazio-ariketa batekin emango zaio hasiera ikastaroari.

. *Zer eta nola*

Ebaluazio etengabea ikastaroaren plangintzan (lan-egitasmoan) proposatutako jardueri buruzko lanetan oinarrituta burutzen da, baita ikastaroan izandako parte-hartzetik / jarraipenetik abiatuta ere.

Jarduerak proposatutako xede-helburuen lorpenari buruzko iritzien arabera neurtzen dira, eta balorazioak era honetara burutzen:

- . **A** (*Oso jarduera ona*, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eransten die.)
- . **B** (*Jarduera ona*, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- . **C** (*Jarduera zuzena*.)
- . **D** (*Proposatutako helburuak gainditu ez izana* adierazten du.)
- . **E** (*Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana* adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da: **1** Ikasgelan egin beharko diren jardueretatik gutxienez % 75 burutu izana, eta horietako bakoitzean gutxienez C kalifikazioa lortzea. **2** Eta aurrez aurreko ikastaroan, gainera, ordu-kopuruen % 80an bertan egotea.

. Helburu operatiboak lortu diren baloratzeko, ikasle bakoitzak ondoren zehaztuko den/diren ataza(k) egin beharko d(it)u.

Helburu operatiboak	Atazak
1 NIAren ezaugarri nagusiak jorratzea.	Hainbat adibide aztertu ondoren NIAren ezaugarriak zerrendatuko dituzte taldeka, eta

	ondoren, zerrenda bakarra adostuko dugu guztion artean. Zerrenda hori, ikastaroaren foro nagusian argitaratuko dugu.
2 Ikaslearen NIAk HEOC berrian eduki dezakeen lekuaz hausnartzea.	Irakasleok ikasleen ikastorduen antolaketan eman dezakegun laguntzaz jardun ondoren, zerrenda bat osatuko dute taldeka, egin ditzakegunak zerrendatuz. Taldekako zerrenda guztiak batu eta bakarra argitaratuko dugu ikastaroaren foroan.
3 NIAk (norberarena zein ikasleena) sortzen laguntzeko teknikak lantzea.	Galdetegi bat sortuko dute taldeka ikaslearen NIA garatzen lagungarria gerta daitekeen informazioa biltzeko.
4 Norberaren NIA identifikatu eta mapa batera ekartzea.	Aurretik diseinatutako galdetegia erabiliz, bikoteka, bata bestearen NIA irudikatu beharko du. Ondoren bakoitzak mapa batera ekarriko du. Mapa horietako batzuk, esanguratsuenak, aztertuko ditugu guztion artean.
5 Twitter, Facebook, Diigo eta Feedly tresnak ezagutu eta oinarritzko erabilpena egitea.	Tresna horietan kontuak zabaldu ondoren, hainbat eduki bilatu/sortu eta partekatuko dute: • Ikastaroaren lehen egunean sortutako zalantza/galderak konpartituko dituzte Facebookeko talde itxi batean. • Twitterren NIArekin ari den jendea/informazioa topatu eta interesgarriena partekatuko dute. • NIAren gaineko sareko baliabideak lokalizatuta (binaka), esteka-zerrendak sortu eta konpartituko dituzte (banaka).

Oinarritzko bibliografia

Castañeda, L. y Adell, J. (eds.). (2013). *Entornos personales de aprendizaje: claves para el ecosistema educativo en red*. (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)

Egile askoren artean- Educacion expandida- Zemos98 (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)

Hainbat egile- Manifiesto 15 (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)

Egile askoren artean- [Educacion conectada](#) (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)

Bibliografia osagarria

[Zerrenda osoa](#) (Ktrl + klik estekari jarraitzeko)